

Ingurumena > Landareak > Baratzetik mundura

ZUBIALDE PATXAKAK

Patxaka sagarrondo basatien oinak txertatuz, bertako barietateak berreskuratzen

GARAZI ZABALETA @tirikitran

2018ko azaroaren 25a



Juan Gamio: "Ekologikoan ari naiz ama lurra zaintzeko, eta gero berak guri elikagai osasuntsuak eman ahal izateko. Gaur egun erabiltzen diren produktu kimiko denek landareen organismo guztia anulatzen dute".

"Etxean genituenak hondatu zirenean, sagarrondoak erosi nituen mintegi batean. Urte gutxira fruitua ematen hasi zirenean ohartu nitzen ez zela bertako sagar klasea, eta gero, gainera, landareak gaixotu egin zitzaizkidan". Sagarrondoaren inguruan herriko adineko jendearekin hizketan hasi zen orduan Juan Gamio Zubialde Patxakak proiektuaren sortzailea. Egun Beintza-Labaienen martxan duen sagarrondoaren mintegiaren hastapenak izanen ziren. Badu berezitasun bat mintegiak: patxaka sagarrondo basatiaren oina erabiltzen du bertako sagar barietateen txertaketak egiteko.

Sagar basatien bila

Patxaka sagar basatiak mendian, mila metrotik gora ateratzen direla azaldu du Gamiok. Udazkenean

mendian sagar basatiak bildu, horien haziak bereizi, eta erein egiten ditu. "Egun merkatuan nagusi diren sagar landare gehienek oina aldaxketatik sortua dute, eta barietate gehienak kanpotik ekarriak eta genetikoki manipulatuak dira", dio.

Adaxketatik sortutako zuhaitzen eta mendiko sagar basatien arteko desberdintasun handienetakoa da basatiak zain oso handiak dauzkala, eta gaitzen aurka abantaila handiak dituela. "Fruituan ere alde handia dago: zain hain handia dutenez, lurrian azpirago dauden mineralak xurgatzeko gai dira, eta hori asko nabaritzen da, batez ere usainean".

"Adineko jendearengandik ikasi dut bertako barietateez"

Oin sendoari Euskal Herriko sagar barietateak txertatzen dizkio Gamiok: San Juan sagarra, udazken gozua, negu sagar xuria, erregin sagar horia eta gorria, mokatia, amabirjin sagarra... bertako sagar barietateen aukera zabala daukate zubialdepatxakak.com webguneko katalogoan. "Adineko jendearekin hizketan ikasi dut gehienbat barietate horien inguruan. Herritarrekin eta sagar munduan dabilen jendearekin hazien hartu-emanak dut", azaltzen du.

Ekoizpen ekologikoan dihardu Gamiok, zigilu eta guzti: "Ekologikoan ari naiz ama lurra zaintzeko, eta gero berak guri elikagai osasuntsuak eman ahal izateko. Gaur egun erabiltzen diren produktu kimiko denek landareen organismo guztia anulatzen dute". Berak apustua egina dauka bertako benetako sagarraren esentzia eta purutasuna berreskuratzeko: usainean, zaporean, kalitatean, elikagai-balioetan... denean irabazteko.

ARGIAN egiten dugun **kazetaritza independenteak** bultzada merezi duela uste duzu?

Informazio askea lantzen dugu ARGIAN, langileok gara proiektuaren jabeak eta gure informazioen atzean ez duzu sekula multinazionalik, bankurik edo alderdi politikorik topatuko. Gure ustez, burujabetza guztien oinarrian dago informazio burujabetza, ezagutzen dugunaren gainean pentsatzen eta erabakitzen dugu. Horregatik diogu kazetaritza independentea dela demokraziaren oinarrietako bat.

Aldizkaria paperean etxean edo e-postan PDFan jaso nahi duzu? Pozik hartuko zaitugu ARGIAko komunitatean. ARGIAkoa izateko, nahi eta ahal duzun ekarpena egin dezakezu, eta bueltan egoki ikusten duzuna eskatu. Indartu dezagun indartzen gaituena!

EGIN ARGIAKO



Kanal hauetan artxibatua: [Baratzetik mundura](#) | [Beintza-Labaien](#)

Jaso egunero **ARGIA**ko albisteen laburpena e-postan:

Idatzi zure e-posta helbidea

HARPIDETU

Baratzetik mundura kanaletik interesatuko zaizu...



2018-12-02 | Garazi Zabaleta

HERRI LAN PROIEKTUA

Astemearen esnea lehengai osasungarri

Kleopatrank bainua hartzen omen zuen esnetan. Ez edozein esnetan, ordea: astoarenen. Mendeetan, munduko toki askotan izan da estimatua astemearen esnea bere propietate onuragarriak direla eta. Ezaugarri horiez jakitun, 2010ean Herri Lan proiektuaren lehen pausoak ematen hasi zen Laurent Darrieumerlou gabadiarra. Astoaren esnea ekoizten du bere etxaldean.

“Urre zuriaren” onurak

Ama-esnearen antz handia duenez, haurrentzako esne egokia da astemearena, Herri Lan proiektuaren... [\[+\]](#)



2018-12-02

ARGIA LEKUZ ALDATUA DURANGOKO AZOKAN

Erruki Jauna

Erruki gutxi izan baitu gurekin bateren batek 2018ko Durangoko Azoka antolatzerakoan. Leku banaketan. Ez gara azken hiru urteetan egon garen lekuan izango, ARGIA ez duzue aurreko sarrerako gune zabal hartan topatuko. Artekale 23, 24 eta 25 erakustokietan izango gara aurten, Areto Nagusiaren aurrean, Landakora sartzeko erdialdeko ateen inguru horretan. Arantzazuko Edizio Frantziskotarraren eta Kontseilu Ebanjelikoaren artean.

Bai bai, ondo irakurri duzu, frantziskotarren eta ebanjelikoen... [\[+\]](#)



2018-11-18 | Garazi Zabaleta

Feminismoa eta elikadura burujabetza bat eginik

Urriaren 25 eta 27 bitartean Euskal Herriko emakume baserritarren lehen topaketen lekuko izan zen Murgiako (Araba) Goikueta aterpea. Etxaldeko Emakumeak taldeak antolatutako ekimenean, elkar ezagutzeko eta saretzen hasteko aukera izan zuten hurbildutako baserritar eta landa eremuko emakumeek.

Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa oinarri

Etxalde mugimendua 2012an sortu zutenetik ikusi zuten bertako hainbat kide emakumek elkartzeko beharra bazutela. 2015ean Emakumeen Mundu Martxako... [\[+\]](#)



2018-11-18 | Garazi Zabaleta

BETERRI KM-0

Bertakoa kontsumitu, bertan ekoitzi dadin

Beterri-Buruntza eskualdeko sei udalek martxan jarri duten proiektua da Beterri Km0. Tokiko produktuen kontsumoa bultzatuz lehen sektorea indartzea eta ekoizle berriei aukerak zabaltzea dute helburu. Urtaro bakoitzean eskualdeko herri batean festa eguna antolatuko dute produktu jakin bat bultzatzeko. Negukoia abenduaren 1ean izanen da Astigarragan, arkumea protagonista hartuta.



2018-11-11 | [Garazi Zabaleta](#)

Nafarroa lantzen ari den Foru Dekretu berria, abeltzain txikientzat kalte

Urtebete inguru daramate Nafarroan abeltzaintza arautzen duen Foru Dekretu berria lantzen. Baina zenbait abeltzain kritiko agertu da dekretu berriak bultzatzen duen abeltzaintza ereduarekin: "Foru Dekretuaren proiektua abere ekoizpen intentsibo eta industrialean oinarrituz egin da, honen garrantzia ekonomikoa soilik baloratuz", salatu zuten urriaren 23an Iruñeko Katakarak liburu-dendan emandako prentsaurrekoan. Nafarroako Arartekoan aurkeztu dute 27 abeltzainek eta 9 alkatek... [\[+\]](#)



2018-11-04 | [Garazi Zabaleta](#)

Gaztainaren ezagutza berreskuratzeko jaia Izkin


1996an sortu zuten Euskal Herriko Hazien Sarea teknikari, nekazari eta Bizkaiko EHNE sindikatuaren inguruan zebiltzan hainbat kidek. 22 urteko ibilbidean hiru alorretan aritu da batez ere lanean taldea, Joseba Iburgurengoitia kideak azaldu duenez: "Hazien inguruko ikerketa, kontserbazioa eta dibulgazioa dira proiektuaren hanka nagusiak". Izkiko (Araba) parkean 2010 inguruan hasi zuen ikerketa taldeak, Arabako Aldundiaren babesarekin. Orduan hasi ziren bertako gaztainondoaren inguruko... [\[+\]](#)



2018-10-28 | Garazi Zabaleta

Errezil sagarra zabaltzen emakume baserritarak motor

Gipuzkoako herriaren izena jasotzen duen sagar barietate ezaguna da Errezil sagarra edo Ibarbia sagarra. Duela 30 urte inguru, Errezilgo hainbat emakume elkartu eta sagarrari aterabidea emateko aukera berrien bila hasi ziren lanean. Egun Errezilgo Azoka den proiektuaren lehen pausoak izan ziren: "Jendea asko mugitzen zen inguruko azoketara sagarra saltzera, eta pentsatzen jarri ginen ea zer egin genezakeen jendea sagarra erostera hona bertaratzeko eta sagarrarekin egindako produktuak... [+]



2018-10-21 | Garazi Zabaleta

GENTIANA PROIEKTUA

Ingurumenari lotuta Pirinioetan lan eta bizi

Pirinioetan ohikoa den landare berezia da *gentiana*, euskaraz gentziana edo errosta. Abiatu zuen proiektuari izen hori jarri zion Silvia Erlanz Roda biologoak: "Ingurumenaren kudeaketan eta heziketan jarduteari ekin nion". Azken aldian ingurumenaren kudeaketan zentratu da batez ere Erlanzen lana. Pirinioetako espezieen jarraipenak, flora eta faunaren inbentarioak edota mendi-bideen inguruko lanetak egiten dituzte Gentianan, besteak beste. "Aquila LIFE proiektu europarra ere... [+]



2018-10-17 | Estitxu Eizagirre

Amaia Agirrek emakume baserritarrei jarritako bertsoak



2018-10-14 | Garazi Zabaleta

Urruñan saltoki ekologikoa helburu

Apirilaz geroztik astero elkartzen dira Larrunkoop proiektuko kideak Urruñako Posta gelan. Zertarako? Tokiko ekoizpenak eta produktu ekologikoak salgai egonen diren kontsumitzaileen kooperatiba sortzeko. Proiektuaren oinarriak zehazten aritu dira azken hilabeteetan, eta urriaren 12an egingen dute egitasmoaren aurkezpena. Hortik aurrera, martxan jarri nahi duten denda irekitzeko jendea biltzea espero dute.

Tokikoak eta ekologikoak lehentasuna

Inguruan dituzten antzeko proiektuak... [\[+\]](#)

▼ BABESLEA ▼



EGILEA



GARAZI ZABALETA
@tirikitran

1998 - 2018 KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.L. Nor gara - Kontaktua - Pribatutasun politika - RSS - Iragarri - Harpidetu - Tel: 943 371 545



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletza direla aitortzen baduzu eta baldintza beretan egiten baduzu.

LAGUNTZAILEAK:



ARRASATEKO UDALA

